

1 Formula ♦ Barrichello brasildarrak lortu zuen Britainia Handiko Sari Nagusiaren polea

Eromena Silverstonen

Azken hamar minutuetan bost pilotok egin zuten denborarik onena

Mikel Ruiz / Donostia

NAHIZ ORAIN arte korritu diren lasterketek besterik adierazi, Erresuma Batuko Sariaren atzoko entrenamendu ofizialek garbi utzi zuten asko direla maila bertsuan ari diren pilotoak. Rubens Barrichello Ferrariko brasildarrak lortu zuen polea, bere bizitzako hirugarrena (lehenengoa 1994an, Jordaneekin, Belgikan, eta bigarrena iaz, Steward-Fordekin, Frantziatik).

Hasi ere Barrichello hasi zen denborarik onena egiten, artean pista bustita zegoela. Baina ateri zegoen, eta autoen gurpilek pista lehortu egin zuten entrenamenduak aurrera egin ahala. Faborito guztiak (Frentzen, Coulthard, Michael Schumacher, Hakkinen) polea hartzen joan ziren, eta McLareneko finlandiarrak beste behingoz lortuko zuela zirudienean, hamar minutu falta zirela, Villeneuve *berpizkunde* aurreratua gertatu zen, *bigarrenen* erreboltari atea zabalduz. Izan ere, quebecktarak, duela hiru eta lau denboraldiko Villeneuve hura gogoraziz, denborarik onena egin zuen, eta aspaldi galdua zuen irribarra berreskuratu.


Buruhauste gozoa Ferrarirentzat

Baina 1 Formularen azkarregi pasatzen da dena, eta Villeneuve atzetik Frentzenek, Verstappenek, Irvinek eta, azkenik, Barrichellok egin zuten denborarik onena, denek hamar minutu eska-sean. Lehen mailako pilotok (Hakkinen, Coulthard eta Michael Schumacher) erreboltari eusteko saioa egin zuten, baina nahiko lan izan zuten postu onak lortzen. Ferrariko Schumacher bosgarrena da irteeran eta aurretik Hakkinen eta Coulthard ditu. Lehena, ordea, Ferrariko Barrichello da, eta Maranellokoek hautamen mina daukate: brasildarraren aukerari eutsi edo brasildarra sakrifikatu eta alemaniarraren zerbitzura jarri. Euriak erabakitzen ez badu, noski.



PIERRE VERDY / EPA

Frentzen, atzo, Erresuma Batuko Sari Nagusiaren entrenamendu saioan. Euria izan zen protagonistetako bat.



Laino beltzak 1 Formularen gainean

EDOZEIN aitzakia da ona 1 Formularen jabe ahalgutidunak (Bernie Ecclestone britainiarra) eta Europako Batasunako kideek borroka egiteko.

Orain dela bi urte Frantziako Gobernuarekin izan zen, 1 Formulako telebista

eskubideen eskusibitateagatik.

Azken urteotan tabakoaren publizitatea izan da eztabaida nagusietako bat. Horren adibide da asteburu honetan Silverstonen korrituko duten auto nagusien dekorazioa. McLaren, Ferrari,

Jordan, Prost eta Honda taldeek tabakogileak dituzte babesle nagusi eta, Silverstonen bezala, ezin izango dute dirua jartzen dien enpresaren logoa erakutsi Katalunian, Frantziatik, Alemanian eta Belgikan.

«Monopolioa egi-

tea eta konpetentziari murrizketak egitea» da Europako Batzordeak 1 Formulako kudeatzailei (Ecclestone kontrolpeko Formula One Administration eta International Sports Cominicators enpresak) egin dien azken salaketa.

laburrean

F U T B O L A

■ Manchester United berriz ere Ingalaterrako Ligako irabazle

ORAINDIK Ingalaterran Liga bukatu ez bada ere, Manchester Unitedek jadanik irabazia du titulua, atzo Southampton 3-1 mendean hartu ondoren. Azkeneko zortzi ligetatik sei irabazi ditu Manchester Unitedek. Italian, berriz, Juventus aurrerapauso handia eman zuen atzo, Fiorentina 1-0 irabazita. Bost puntu kentzen dizkio bigarren sailkatuari, Laziori. Talde honek 0-2 irabazi zuen atzo, Piacenzaren etxean. Hiru jardunaldi falta dira. Belgikan Anderlecht atzo irabazi zuen Liga.

X A K E A

■ Mario Gomezek irabazi du Donostiako Nazioarteko Txapelketa

MARIO GOMEZ santurtziarra izan da Donostiako Nazioarteko Txapelketako garailea. Atzo bukatu zen txapelketa, eta Gomezek nahikoa zuen Aleksander Veingold estoniarrarekin parra egitea. Eta parrean bukatu zuten. 7,5 puntuarekin amaitu zuen Gomezek. Puntu beraiekin baita ere Oleg Korneev errusiarak. Iñigo Argandoña eta Felix Izetak bosgarren lekuan amaitu zuten.

E R R U G B I A

■ Larraldeko junior mailako Munduko Txapelketaren finala jokatu du gaur

BAIONAKO Larralde gibelgoak sasoi biribilduko du gaur, junior mailako Munduko Xapelgoaren finala jokatu baitu, Dijonen (Frantzia). Frantziarekin ari da jokatzeko, eta Australiaren kontra jardungo du. Frantziak Gales kanporatu zuen finalerdian (29-0), eta Larralde bigarren zatian zelairatu zen. Australiak Zeelanda Berria kanporatu zuen, luzapenean.

■ ESAITek Hazparnen jokatu du gaur

LAGUNARTEKO partida jokatu du gaur Euskal Selektzioaren Aldeko Iritzi Taldearen (ESAIT) errugbi arloko taldeak, Hazparnen (Lapurdi). Gehienbat Hego Euskal Herriko jokalaririk onenentsuenak bildu izan ditu, eta gaur Hazparnen aurka ariko da (11:00).